

# ASKATASUNAREN ZENTZUNA

x a n t i

Askatasuna! Guri bai eder yakula itz au aoz artzea! Usain atsegin-garria darion lora mee mardula bai'litzan, geugaz darabilgu beti, ezpanetan eta biotzean.

Ez noa emen jakintza arloan sakon sartzen; itz onek barnean dauazan zeaztasunak eta berezitasunak oro lumaz adierazteko, ez dot bear beste astirik. Ez, gogoeta batzuk arilduko dodaz bakar-bakarrik; itz au, askatasuna esatean, aoz zer diñogun eta gogotan zer darabilgun jakitea egoki yaku-ta. Onetan be, bada, askotan beintzat, iñok esana axe guk be, papao antzera, bir-esan oi dogu. Ez dausku egia naiz guzurra izan: arek diño ta guk ari otsa atera. Baiña egiaz gizona danak, daukazan gaitasunak zertarako ditun dakianak, eleuke olan jokatu bear, benetako zentzunak azpimarkatzen dautson bidetik bere oiñak zuzendu baiño.

Gizonak bere askatasuna dau, ez izan onetan ezpairik. «Ni aske naz» esan oi dogu, gaur batez be. Egia dozu, ta ortik ernea da zure aunditasuna; baita daukazuzan bete-berrak be —Jainkoari, erriari ta oiturai buruzkoak nunbait—, ortik erneak dozuz. Aske zara, bai, baiña besteen aukerak be aintzat artu bear dozuz.

Zu gizona zara, gizon askea, zeure eskukoa. Etzara, alan be, *gizon*-askatasun. Askatasun oso ba'litz gizon bakotxa, dana litzake aske oitura ta etika maillan; baita ekonomi ta politika arloan be. Zertan gabiltz orduan latz kritikatzan au naiz beste jokabidea ekonomian eta politikan? Bide danak ez ete ditugu onak? Nik ondasunetan asko baldin ba'daukat, zuk zer dala-ta txarto esan? Ez aitatu orduan gizarte-auzirik, ez esan lurra

Handwritten text at the top of the left page, appearing as a header or introductory paragraph.

First main paragraph of handwritten text on the left page.

Second main paragraph of handwritten text on the left page.

Third main paragraph of handwritten text on the left page.

Fourth main paragraph of handwritten text on the left page.

Fifth main paragraph of handwritten text on the left page.

Handwritten text at the top of the right page, appearing as a header or introductory paragraph.

First main paragraph of handwritten text on the right page.

Second main paragraph of handwritten text on the right page.

Third main paragraph of handwritten text on the right page.

Fourth main paragraph of handwritten text on the right page.

legeak batez be, ez ainbeste aginduzkoak, aginduak estutu egin oi gaitulako, moral betebear ori errez geratu daiteke iruzur egiñik. Gizona aundiala-ta, bere zoria burutu dagian aske sortu ta jarri izanagaitik, ezta sarri gerta oi orrela. Beraz, garrasi dagi aren askatasunak, asmoz ta egitez bere gogora gauzak egiten izten ez yakonean baitik bat. «Ez dot gura», «ez dot egingo» esaten dogu sarri; «ori ez da nik gogo dodana»; ez, baiña, orixe egin bear.

Legerik bage bizi nai, alan be legearen esi barruan jokatu beariko. Lege-arerio esan oi yako era orretan bizi nai dauanari. Bardin da, barriz, onela nai arela deitu; izenak ez dau gauza aldatzen. Egia auxe da: guztien aske izatea batu bear dan ezkeru, ez yatzu errez norberak nai leukena osorik egitea. Onek, baiña, ez dautso ezer moztuten gure aske izateari, beronek ditun eskubideetatik. Au be autortzen da, edo beintzat, esan oi da: guzurra dala, beintzat, egitez ipiñi ezin daikegun guztia; egin eziña izan leiteke, bear bada, baiña ez guzurra, egirik gabea. Lege-zale ez danak, bere irudiz txarto dagoana, edo-ta gizartean jazo oi dana, salatu daroa miñez naiz idatziz. Lege barik bizi nai dauana dabil, geienik, besteak ames dagiena iragarri ta zabaltzen.

Lege-bagea ez doa oker-bidetik bere zoria berak dagiala diñoanean; baiña oker doa bere zoria norberekeri estu baten orma barruan gorde ta zaindu nai dauanean. Izugarria dalarik be, orrelaxe dozu. Lenena ta naitaezkoa da askatasuna; azkena, baiña, azkenengo urratsa ez da iñolaz beste oinkada batzuk emon bear dira. Askatasunak ezagutzen dau beste zerbaite, aurrerago egiñik, aurkitzen dana: egi-billa abia bear dau gizon askeak, meatz zuloan zerro naiz zan billa dabilenaren antzera, idoro ta azkenez onen, ots, egiaren zerbitzuan jarri. Morroi leialak ugazabarekin dagiana, nunbait.

Or dozu giza-izatearen muiña; egiak bakar-bakarrik gu aske egingo. Egi utsa dan Kristok onela: «Egiak egingo zaitu aske». Itzok, egiaz, sarri idazkortzean erabilliak, ez dozuz esaera bakarrik, ezta sortaldeko jakituraren alegi batzutan datozenak be. Euren mamiña dabe, egi soil-soillara aragia otz-ikaraz dardarazten dauskuenak.

Askatasunari ezarri geinkeoz bere zatiak: aukeramena lenengo ta bein au naiz bestea egiteko eukera, ikasi naiz ikasi ez, jokatu naiz jokatu ez... naien dodana aukeratu. Au, barriz, gauza aundia dot. Eta leen-askatasun au zerbaiteko jarria da, ezta? Nik egia aurkitu dagidan, eta berau aurkituta be, nik oindiño bera ezetsi, baztetu, atzerazo naiz zapuztu al izan dagidan; neuregan dago ori, neuk egin neinkena da Ezizal ezik, onartu ta besarkatzen ba'dot, egiaren beste neurkera bat agertze yatz, askatasunari be ondo dagokiona: norbere burua iñoren morroitzat askatu.

Olan alkarte bat osotzen da, iñoren menpekotze bakoa. Oraintxe asten naz ni, egi-egiaz, nun ipiñita nagoan ikustean: Jainkoaren bidean bertan. Bizia, itxuraz galdua irabazten; ez gero saltze edo jabe aldatze bat lez, jabe lez baiño; neureaz jabetzen naz, baiña besteak be gogotan izanik, danentzat egiña. Emen asten da beste bide bat, gatxagoa; beste mailla batera aldatua izan naz, eta leen oitutako osabideak ez dabe baliorik. Leengo egoeraren kontra jokatzera da mailla orretan irautea; izango ditut milla istillu ta arerio biziera barrian iraun naita. Aize oneik arnastu gura, ta mundu guztia jagi yat aurka. Lengoan jarraitu nai dabenak, legerik gura ez dabenak, aretoko iraultzailleak eta abar, oneik danok aurka, neure kontra, betarte illun izango dodaz. Sutzar aundiak gertatuko daustez, asmoz baiño ezpada be.

Baiña alperrik izango euren izketa ta idazketa biurri guzti ori. Naiz itz nausiz naiz txikiz jokatu, bardintsu da; bota nai beste txingar egizalearen begietara: onek artu dauan bideari ekingo dautso, tinko be tinko, bide-ertzeko mugarri bai litzan. Emon izen nazkagari ta laidotsuak, ekin aspertu barik alakoaren ospe ta entzutea beztu, loiz bete gurarik: ez da ezer lortuko. Ezjakiñak eta mekoak errez atzipetu daroaguz, baiña ez ain errez egiari gartsu oratu dautson gizona. Au aske dabil, eta poz-bitsetan, askatasunean eta egian.

Giza-filosofi onek, gizonari kristau danetik begiratu ezkeru, ba-dau bere aurrez-aurrezkoa; gizatiar izateari itxi barik, izatasun orregaz aurkitzen da aurrez-aurre; geiago oindiño, kristau dalako ta kristau izateari izten ez dautsolako, gerta oi yako aurkitze ori. Orixegaitik daki egi-zale danak ez daukola ziurtuta, beste barik, aldi onetako ondoren zoritsua, mundu onetako arrakasta, gaur esan oi danez. Ez pertsona batek bakarririk, zibilizaziño oso batek be izan daitekez lau guzur oiñarritzat, naitaez onartuak eta aldeztuak etsi-etsian, ain zuzen be. Ustelaren ondoan aurkitu oi da zindoa. Edo-ta Dante'k iñoanez, itxasoaren erdian be bada erri ustelik; maskal, zarpail, ondatua bear bada, baiña jori ta oparo bizi dana.

Zeatz ezagutu bear da gizona, egiazko giza-jakintza orixe dogu-ta. Gizona zer dan eta zer izan bear dauan ezagutu ta jakin. Jakintza ta filosofi onek gogoan euki oi ditu gizona bizi dan giroa, bira ta inguruak, une orretan nabari diran kultur-arlo ta saillak, bere krisiak eta okerkuntzak, zentzun-galtze ta biurrikeriak. Ustelduaren kontra jagi bear da, egia dana goretsiz. Gizona dan lez, Jainkoaren izaki, ta beronegaz bizi ta dabilzanak, ikusi bear dira: ez daroa larrosa zimeldurik, ez debekatzeko kateirik, basoetako lorak eta bizi izandako askatasunaren ikurrin ikusten ez diranak baiño.

